

EKONOMIA ETA ADMINISTRAZIO KLAUSULEN ORRIA, MUSIKAGELA (MUSIKA ANPLIFIKATUA EGITEN DUTEN HIRIKO TALDEEI ZUZENDURIKO ENTSEGU-ARETOEN ESKAINTZA) EGIA ETA INTXAURRONDO (DONOSTIA) KULTUR ETXETAN KUDEATZEKO ETA DINAMIZATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKIKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUENA

- 1. KONTRATUAREN XEDEA ETA GAUZATZE EREMUA**
- 2. ERAKUNDE KONTRATUGILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA**
- 3. ESLEIPEN PROZEDURA**
- 4. ALDAERAK**
- 5. KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA**
- 6. IRAUPENA**
- 7. LIZITAZIOAREN URTEKO GEHIENEZKO AURREKONTUAK ETA KONTRATUAREN GUTXI GORABEHERAKO BALIOA**
- 8. PREZIOA ORDAINTZEA**
- 9. PREZIOAK BERRIKUSTEA**
- 10. PUBLIZITATEA**
- 11. BEHIN BETIKO BERMEA**
- 12. GAITASUN BALDINTZAK**
- 13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA**
- 14. BALORAZIO IRIZPIDEAK**
- 15. EBALUAZIO BATZORDEA**
- 16. PROPOSAMENAK IREKITZEA**
- 17. KONTRATUA ESLEITZEA**
- 18. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA**
- 19. KONTRATUAREN ARDURADUNA**
- 20. KONTRATUA GAUZATZEA**
- 21. OINARRIZKO KONTRATU BETEBEHARRAK**
- 22. DATUEN BABESA**

23. KONFIDENTZIALITASUNA ETA SEKRETU BETEBEHARRA

24.ZIGORRAK

25.KONTRATUA LAGATZEA

26.AZPIKONTRATAZIOA

27.KONTRATUAREN ALDAKETAK

28.ERANTZUKIZUNA

29.KONTRATUA ETETEA

30.HARRERA

31.KONTRATUA DEUSEZTATZEA

32.ARAUBIDE JURIDIKOA

33.JURISDIKZIOA

I. ERANSKINA. ABAL EREDUA

II. ERANSKINA. LIZITATZAILEAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK, JAKINARAZPENAK BIDALTZEKO

III. ERANSKINA. AITORPEN ERANTZULEA

IV.D. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

V. ERANSKINA. AITORTZA ARDURATSUA, LAN ARRISKUEN PREBENTZIOAREN ARLOKO BETEBEHARRAK BETE DIRELA EGIAZTATUZ

EKONOMIA ETA ADMINISTRAZIO KLAUSULEN ORRIA, MUSIKAGELA (MUSIKA ANPLIFIKATUA EGITEN DUTEN HIRIKO TALDEEI ZUZENDURIKO ENTSEGU-ARETOEN ESKAINTZA) EGIA ETA INTXAURRONDO (DONOSTIA) KULTUR ETXETAN KUDEATZEKO ETA DINAMIZATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKIKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUENA

1. KONTRATUAREN XEDEA ETA GAUZATZE EREMUA

Lizitazio honen xedea da enpresa bat aukeratzea, "Musikagela Zerbitzua" (musika anplifikatua egiten duten hiriko taldeei zuzenduriko entsegu-aretoen eskaintza) Egia eta Intxaurrondo Kultur Etxetan kudea eta dinamiza dezan Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoaren izenean (aurrerantzean, DONOSTIA KULTURA), orri honetan eta Baldintza Teknikoen Orrian xedatukoarekin bat.

Horretarako, DONOSTIA KULTURAK "Musikagela Zerbitzua"-ko instalazioak (Donostiako Egia eta Intxaurrondo Kultur Etxetan daudenak) enpresa esleipendunaren esku utziko ditu, kontratu honen prestazioak gauza ditzan.

Esleipendunak Baldintza Teknikoen Orriaren 2. Klausulan xedatukoari jarraiki kudeatu eta dinamizatu beharko duen "Musikagela Zerbitzua" honako honetan datza, funtsean:

A) Entsegu-aretoak denbora batez erabiltzeko lagatzeko zerbitzua:

Zerbitzua Egia Kultur Etxeko 7 gelatan eta Intxaurrondo Kultur Etxeko 5 gelatan eskainiko da.

B) Biltegia:

DONOSTIA KULTURAK espazio bat egokituko du, zerbitzuaren erabiltzaileek beren musika instrumentuak bertan gorde ditzaten.

C) Grabaziorako eta zuzeneko ekipo eramangarriak lagatzeko zerbitzua (Egia Kultur Etxean bakarrik)

Lizitatzaileek hiru atal horiek barne hartuko dituzten eskaintzak aurkeztu beharko dituzte.

Era berean, esleipendunak "Musikagela Zerbitzua" dinamizatzeko jarduerak garatuko ditu, Baldintza Teknikoen Orriaren 2.3.B) Klausulan xedaturiko baldintzak betez.

2. ERAKUNDE KONTRATUGILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA

Erakunde kontratatzailea DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA da (DONOSTIA KULTURA aurrerantzean).

DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN Zuzendari Kudeatzailea da Kontratazio Organoa.

3. ESLEIPEN PROZEDURA

Prozedura ireki bidez esleituko da kontratua, eskaintza ekonomiko abantailatsuenaren egiten duen lizitatzaillearen alde, Orri honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera.

4. ALDAERAK

Ez dira onartzen.

5. KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA

Honako hauek izango dute kontratu izaera, esleipenaren ondoren egiten den kontratuaz gain: ekonomia eta administrazio klausulen orri honek, baldintza teknikoen agiriak eta esleipendunak aurkezten duen eskaintzak.

Enpresa esleipendunak aipatutako agiri guztiak sinatuko ditu, kontratuak formalizatzen direnean, guztiak onartzen dituela egiaztatuz.

6. IRAUPENA

Kontratuaren iraupena bi urtekoa da eta sinatu eta biharamunean hasiko da. Bi urte jarraian luza daiteke, erakunde kontratugileak berak bakarrik eskatzen badu ere. Horrenbestez, kontratuaren gehienezko iraupena, luzapenak barne, lau urtekoa izango da.

Luzapenaren/en jakinarazpena/k kontratua amaitu baino hiru hilabete lehenago egingo da/dira gutxienez eta derrigorrezkoa/k izango da/dira enpresa esleipendunarentzat.

7. LIZITAZIOAREN URTEKO GEHIENEZKO AURREKONTUAK ETA KONTRATUAREN GUTXI GORABEHERAKO BALIOA

7.1. Lizitazioaren urteko gehienezko aurrekontuak.

Lizitazioaren gehienezko (urteko) aurrekontua **48.595,04 eurokoa** da, Balio Erantsiaren Gaineko Zerga (BEZ) kanpo. Ondokoa da bere banakapena:

- **P1 Prezioa:** Egia Kultur Etxea: **23.966,94 euro (BEZa kanpo)**
- **P2 Prezioa:** Intxaurrondo Kultur Etxea: **24.628,10 euro (BEZa kanpo)**

Lizitatzailleek kultur etxe bakoitzean eskainitako zerbitzuen dagozkien aipatu lizitazioaren urteko gehienezko aurrekontuak (P1 eta P2) murriz ditzakete beren proposamen ekonomikoan. Baina ezingo da, inolaz ere, kultur etxe bakoitzean eskainitako zerbitzuen dagozkien aipatu lizitazioaren urteko gehienezko aurrekontuetatik (P1 eta P2) gaineko preziorik proposatu. Prezio horietakoren bat gainditzen dituzten guztiak lizitaziotik kanpo geratuko dira.

Enpresa lizitatzailleek eskainitako urteko prezioan kontratuaren xedea den zerbitzua eskaintzeko beharrezko gastu guztiak barne hartuko dira, betiere Orri honetan eta Baldintza Teknikoen Orrian adierazten denaren arabera. Ez da a posteriori onartuko aldez aurretik azken prezioan barne hartu ez diren kontzeptuengatik fakturaziorik.

Halaber, eskainitako prezioen barruan ulertuko dira zerbitzuek berezkoak dituzten kontzeptu guztiei dagozkienak eta zerbitzuak eskaintzeko baliatutako langileekin lotutako gastu guztiak (besteak beste, soldatak eta Gizarte Segurantzaren oporrak eta aparteko ordainsariak, langileen bajak edo gaixotasunak direla eta egiten diren ordezkapenak, istripu indibidualetarako aseguruak, etab.), bai eta zerga (BEZa kanpo), gainerako aseguru, lizentzia, baimen eta bestelako gastu orokor guztiak ere.

Lizitatzailerik eskainitako prezioetan sartuta egongo dira, halaber, zerbitzua eskaintzeko esleipendunak erabili beharko dituen baliabide, erreminta, ibilgailu, ekipo, tresna, ekipo informatiko eta lanabes guztiak.

Eskainitako prezioetan sartuta egongo dira, halaber, esleipendunak dinamizazio-jarduerak gauzatzeko eta ikastaroak emateko ordaindu behar izan dituen gastuak.

Enpresa lizitatzailerik kontu sail independente batean adieraziko dute DONOSTIA KULTURAK jasan beharko duen BEZa.

Esleipendunak jasango ditu kontratazioaren deialdia egiteko eta kontratuaren formalizazioaren iragarkiak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzearen ondoriozko gastuak.

7.2. Kontratuaren balio zenbatetsia.

Azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina (aurrerantzean, SPKLTB) onartzen duenaren 88. artikulua onorioetarako, kontratuaren balio zenbatetsia **194.380,16 eurokoa** da.

Balio zenbatetsi hori SPKLTBren 88.5 a) artikulua arabera kalkulatu da. Hau da, kontuan hartu da aurreko hamabi hilabeteetan balio beragatik esleitutako antzeko kontratuen benetako balioa, kontratua hasi eta ondorengo hamabi hilabeteetarako aurreikusitako kantitateen aldaketen arabera egokituta, eta kontratuak irauten duen denbora guztian luzatu da, balizko luzapenak barne hartuta.

8. PREZIOA ORDAINTZEA

Hilero egingo da prezioaren ordainketa, zerbitzua jaso eta gero eta DONOSTIA KULTURAK dagokion faktura onartu eta gero.

DONOSTIA KULTURARI eskainitako zerbitzuen ordainean hilero ordainduko den kopurua kalkulatzeko, esleipendunak Egia eta Intxaurrondo Kultur Etxe bakoitzean eskainitako zerbitzuak eskaintzeagatik esleipendunak proposatu zituen urteko prezioak (P1 eta P2) hamabi hilerokoekin zatituko dira.

Esleipendunak faktura luzatuko du hilero, kasuan-kasuan dagokion hilabetea amaitu eta hurrengo hilabetea lehenengo 15 egun naturalean. Fakturan eskainitako zerbitzuen banakapena adieraziko da. Fakturak lizitazioaren espediente-zenbakia adieraziko du ere.

DONOSTIA KULTURAK eskainitako zerbitzuen eta erabilitako materialen prezioa ordainduko du, zerbitzuak eskaini diren hilabetea amaitu eta 30 egun naturaleko

epean, betiere faktura luzatu bada lehen aipatutako epean eta DONOSTIA KULTURAK ontzat eman badu aldez aurretik.

9. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Ez da prezioen berrikuspenik egingo.

10. PUBLIZITATEA

Lizitazio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta DONOSTIA KULTURAREN kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Kontratuaren esleipena DONOSTIA KULTURAREN kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Kontratuaren formalizazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta DONOSTIA KULTURAREN kontratugilearen profilean argitaratuko da.

DONOSTIA KULTURAKO kontratugilearen profila honako webgune honetan dago eskuragarri: www.donostiakultura.com.

11. BEHIN BETIKO BERMEA

Kontratuaren esleipendunak, bere gain hartutako betebeharrak beteko dituela bermatzeko, behin betiko berme bakar eta orokor bat eratuko du erakunde kontratugilearen alde. Berme hori kontratuaren balio zenbatetsiaren % 1ekoa izango da, BEZa kanpo.

Aipatutako erakunde kontratugileak eskaera egiten badu, berme hori diru bihurtuko da.

Eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkezten duen enpresa lizitatzailerak hamar egun baliodun edukiko ditu aipatutako bermea eratzeko, Kontratazio Organoaren eskakizuna jaso eta biharamunetik hasita.

SPKLTBaren 96. artikuluan ezarritako edozein modutan era daiteke bermea.

Eskudirutan egiten bada, Kutxako 2095 0611 09 1061519723 kontu korrontean egingo da.

Abal moduan eratuz gero, agiri honi **I. eranskin** gisa gehitu zaion ereduaren arabera izango da.

Ezingo da bermearen egiaztatzea bide elektronikoen bidez egin.

Bermea SPKLTBaren 102. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da, behin bermealdia igaro ondoren eta enpresa esleipendunak kontratuko betebeharrak guztiak bete dituenean.

Bermea itzultzeko, erakunde kontratugileak aldeko txostena eman beharko du.

Bermearen gainean enpresa esleipendunari eska dakizkiokeen zigorrak edo kalte-ordainak gauzatzen badira, enpresa esleipendunak bermea berrezarri edo handitu beharko du dagokion zenbatekoan. Haiek gauzatu eta hamabost egun naturaleko epea izango du. Hala egin ezean, kontratua deuseztatzeko arrazoia izango da.

Kontratuaren aldaketaren baten ondorioz haren prezioa aldatzen bada, behin betiko bermea berregokitu egin beharko da, aldatutako prezio berriarekin beharrezko proportzioa gorde dezan. Hamabost egun naturaleko epea utziko da bermea egokitzeko, esleipendunari aldatzeko erabakia jakinarazten zaionetik hasita.

Klausula honetan aurreikusi gabeko guztian, SPKLTBren 95. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa izango da aplikatzekoa.

12. GAITASUN BALDINTZAK

DONOSTIA KULTURArekin kontratatu ahal izango dute jarduteko ahalmen osoa duten eta kontratatzeko debekurik ez duten Espainiako zein atzerriko pertsona natural edo juridikoek.

Ezin izango dute lizitazioan esku hartu kontratuaren zehaztapen teknikoak edo prestaketa dokumentuak lantzen parte hartu duten enpresek, baldin eta parte hartze horrek lehia librerako murrizketak eragin baditzake edo gainerako enpresa lizitatzailerikiko tratu pribilegiatua ekar badezake.

Enpresa lizitatzailerik, halaber, kontratuaren xede diren prestazioak egiteko beharrezkoa den lanbide edo enpresa gaikuntza eduki behar dute.

Pertsona juridikoek kontratuaren esleipendun izateko aukera izango dute, baldin eta, kontratuko prestazioak haiei berez dagozkien helburu, xede edo jarduera-esparrukoak direnean, haien estatutuen edo sorrerako arauen arabera.

Nolanahi ere, DONOSTIA KULTURArekin kontratatzeko ahalmena izango dute Europar Batasuneko estatuetako enpresa ez espainiarrek, baldin eta ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera kasuan-kasuan zerbitzua betetzeko gaituta badaude. SPKLTBaren 58. artikuluan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa.

Enpresa horiek ezarrita dauden estatuko legeriak kasuan kasuko zerbitzua egin ahal izateko baimen bereziren bat eskatzen duenean, edo erakunde jakin bateko partaide izatea eskatzen duenean, baldintza hori betetzen dutela frogatu beharko dute.

Europar Batasunetik kanpoko estatuetako pertsona fisikoek edo juridikoek jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, dagokien estatuan Espainiak duen diplomazia misio iraunkorraren txostena beharko dute, edo enpresaren egoitza dagoen lurraldeko kontsularen bulegoarena. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko eta SPKLTBaren 3. artikuluan adierazitakoen pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan parte hartzea.

DONOSTIA KULTURArekin kontratatu ahal izango dute horretarako aldi baterako eratzen diren enpresaburuen elkarteek. Horretarako, ez da beharrezkoa izango elkarte

horiek eskritura publikoan gauzatzea kontratua haien alde esleitu arte. SPKLTBaren 59. artikuluan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa.

13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

Proposamenak aurkezteak esan nahi du enpresa lizitatzailleak baldintzarik gabe onartzen dituela Orri hau, Baldintza Teknikoen Orri osoa eta kontratuari lotutako gainerako dokumentazioa, inongo salbuespenik gabe.

Orri hau eta Baldintza Teknikoen Orria kontratugilearen profilaren bitartez eskura daitezke, honako webgune honetatik: <http://www.donostiakultura.com>.

Halaber, dokumentazio hori DONOSTIA KULTURAREN bulegoetan aztertu ahal izango da (Erregina Erregeordea, 8 / 20003 Donostia), astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara (udan 9:00etatik 13:30era), iragarkia DONOSTIA KULTURAKO kontratugilearen profilean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epearen azken egunera arte.

Lizitazio honetan parte hartzeko, enpresa lizitatzailleek **HIRU GUTUN AZAL ITXI aurkeztuko dituzte (A, B eta C)** DONOSTIA KULTURAREN aipatu bulegoetan (astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara; udan 9:00etatik 13:30era), erregistro-ordutegiaren barruan, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den lizitazio-iragarkian ezarritako epearen barruan. Gutun-azal horietan beranduago aipatuko den dokumentazioa sartuko dute eta guztietan jarriko dute xede den kontratazioa, enpresaren izena, proposamena sinatzen duen pertsonaren izen-deiturak eta izaera, telefono- eta fax-zenbakiak eta helbide elektronikoa. Halaber, jakinarazpenak jasotzeko lehenesten den bidea adieraziko da, Plegu honen **II. Eranskin**eko ereduaren arabera.

Epearen azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

Ordutegi muga hori ez da ezarriko proposamenak postaz bidaltzen badira. Kasu horretan, proposamenak aurkezteko azken egunaren edozein ordutan aurkeztu ahal izango dira; betiere, ondoren datorren paragrafoan adierazitako baldintzak betetzen badira.

Lizitatzailleak proposamena postaz bidaltzen baldin badu, bidali duen eguna egiaztatu beharko du postetxean, eta eskaintza posta bidez bidali duela adierazi beharko dio DONOSTIA KULTURARI egun bereko telex, fax edo presako telegrama bidez (ondorengo zenbakira: 943483900). Proposamena bidali izana posta elektronikoaren bidez ere adierazi ahal izango da (ondoko helbidera: donostiakultura@donostia.eus). Posta elektronikoaren bidez jakinarazteak baliorik izango badu, nahitaezkoa izango da jasota egotea bai jakinarazpenak bidali izana, bai jaso izana, bai haien eduki osoa; eta igorlea eta hartzailea modu fidagarrian identifikatzea.

Halakoetan, kopia bat inprimatu eta erregistratuko da, gero espedienteari eransteko.

Bi baldintza horiek betetzen ez badira, jakinarazpenean adierazitako epea igaro ondoren jaso ezean, dokumentazioa ez da onartuko.

Adierazitako dataren ondoren 10 egun natural igaro eta proposamena hartu ez bada, ez da inola ere onartuko.

Gutun azal bakoitzak ondoren zerrendatuko diren dokumentuak edukiko ditu, eta bertan dauden dokumentuen zerrenda zenbakitua jasoko du.

A.- gutun-azala.- "KONTRATATZEKO GAITASUNA"

Enpresa lizitatzailleek kontratatze gaitasuna ziurtatzeko gutun-azal bat aurkeztuko dute, honako agiri hauek barne hartuko dituenak.

1. Enpresa lizitatzailleak eta, hala badagokio, bere ordezkariak, jarduteko gaitasuna duela ziurtatzen duten agiriak:

- Pertsona juridikoak diren enpresaburuen kasuan, enpresako eskritura edo sorrera agiria, Estatutuak edo sorrera egintza aurkeztu behar dira jarduteko gaitasuna ziurtatzeko (dokumentu horietan zehazten dira jarduera arautzen duten arauak). Dokumentu guztiak dagokien erregistro publikoan behar bezala inskribatuta egongo dira, pertsona juridikoaren motaren arabera dagokionean.

- Europar Batasuneko estatuetakoen enpresaburu ez espainiarren jarduteko ahalmena frogatzeko dokumentu hauek aurkeztuko dira: ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera dagokien erregistroko inskripzioa, edo zinpeko aitorpena edo ziurtagiria, aplikatzekoak diren Europako Erkidegoko xedapenen arabera.

- Gainerako enpresaburu atzeritarren kasuan, jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, dagokien estatuan Espainiak duen diplomaziako misio iraunkorraren edo enpresak egoitza duen lurralde-esparruko kontsultxeko bulegoaren txostena aurkeztuko da. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko eta SPKLTBaren 3. artikuluan adierazitakoen pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan parte hartzea.

- Pertsona fisikoak diren enpresaburuen jarduteko ahalmena frogatzeko Nortasun Agiri Nazionala aurkeztuko dute, edo dagokien estatuko agiri baliokidea aurkeztuko da.

- Ordezkarik gisa aurkezten diren pertsonak, edo proposamenak beste norbaiten izenean sinatzen dituztenek, nortasun agiri nazionalaren kopia aurkeztuko dute, bai eta horretarako ahalorde askietsia ere. Enpresa pertsona juridikoa bada, Merkataritza Erregistroan inskribatuta egongo da ahalordea, Merkataritza Erregistroaren Araudiko 94. artikuluan aurreikusitakoak horrela eskatzen badu, edota, hala badagokio, dagokion erregistro publikoan aurreikusitakoak eskatzen badu, dagokion pertsona juridiko motaren arabera.

- Aldi baterako elkarte batean bilduta esku hartu nahi duten enpresaburuek elkartearen eratzeko eratzeko dutenen izenak eta ezaugarriak eta bakoitzaren partaidetza adierazi beharko dituzte. Esleipendun suertatuz gero, aldi baterako enpresa-elkartearen eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere adierazi beharko dute. Aldi baterako elkarte batean bilduta esku hartu nahi duten enpresaburuak solidarioki behartuta egongo dira, eta elkartearen ordezkari edo ahaladun bakarra izendatu beharko dute. Ordezkarik edo ahaladun horrek kontratuaren ondorio diren eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko behar besteko ahalordeak izango ditu kontratua iraungi artean. Dena dela,

ahalorde erkidetuak ere eman ahal izango dituzte zenbateko handi samarreko kobrantzak eta ordainketak egiteko.

Aurkeztuko diren dokumentu horiek guztiak jatorrizkoak edo behar bezala konpultsatutako kopiak izango dira.

2. SPKLTBren 60. artikuluan kontratuak egiteko ezartzen diren debekuetako batean ere ez dagoela adierazten duen lizitatzaillearen aitorten erantzulea, **III. Eranskinean** azaltzen den ereduaren arabera.

Lizitatzailleak indarrean dauden xedapenetan ezartzen diren zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta izatearen aitorten erantzulea barne hartuko da. Eskaintza ekonomiko onuragarriena egiten duen lizitatzailleak aipatutako baldintza betetzen duela ziurtatuko du, eta horretarako hamar egun balioduneko epea edukiko du, DONOSTIA KULTURAK xede horrekin bidaltzen dion jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Dokumentu horretan, lizitatzailleak lizitazio prozesuaren, esleipenaren eta exekuzio osoaren ondorioz (esleipendun suertatuz gero) jasotako datu guztiei gardentasun instituzionala emateko onarpen boluntarioaren aitortzea sartuko du ere.

3. Enpresaburuaren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa honako modu hauetako batera, edo batzuetara, egiaztatuko da:

- Finantza-entitateen aitorten egokiak.

- Merkataritza Erregistroan edo dagokion Erregistro ofizialean aurkezturiko urteko kontuak, pertsona juridiko motaren arabera. Erregistro ofizialetan kontuak aurkezteko obligazioa ez duten enpresaburuek, egiaztatze modu alternatibo gisa, behar bezala legeztatutako kontabilitate-liburuak aurkeztu ahal izango dituzte.

- Negozioen bolumen globalari eta, hala badagokio, kontratuaren helburuari dagokion jardueren esparruko negozioen bolumenari buruzko aitortzea. Enpresaburuak jarduerak sortu edo hasi zituen datuen arabera, gehienez eskura dauden azken hiru ekitaldiei loturik egongo da aitorten hori, baldin eta negozioen bolumen horren erreferentziak eskura dituzten neurrian.

Justifikaturiko arrazoi batengatik eskaturiko erreferentziak ezin baditu aurkeztu enpresaburuak, kontratazio-organoak egokitzen jotzen duen beste edozein dokumentu aurkeztuz kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatze baimena emango dio.

4. Atzerriko enpresek berariazko aitortzea aurkeztu beharko dute. Bertan, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka sor daitekeen gorabehera orotarako, Espainiako edozein mailako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko direla eta, hala badagokio, atzerriko jurisdikzio foruari uko egiten diotela adieraziko dute.

5. Jakinarazpenak jasotzeko lehentasunezko bitartekoa aukeratzea, agiri honen **II. eranskineko** ereduaren arabera.

6. Laneko arriskuen prebentzioaren alorreko betebeharrak betetzeari buruzko erantzukizunpeko aitortzea, **V. eranskinaren** arabera.

Oharrak:

- (i) Kontratisten Erregistro Ofizialari buruzko otsailaren 3ko 12/1998 Dekretu bidez erregulatutako Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitatzzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean izena emana duten lizitatzzaileek, Erregistroaz arduratzen den abokatuak luzatutako indarreko ziurtagiriaren kopia aurkez dezakete 1. Atalean eskaturiko dokumentazioaren ordez. Izena emateko ziurtagiriarekin batera, dokumentuan ezarritako baldintzak aldatu ez direla adieraziko duen adierazpen erantzulea aurkeztu beharko dute.
- (ii) DONOSTIA KULTURAK eskubidea du lizitatzzaileek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko edo dokumentazioa eskatzeko.
- (iii) Atzerriko enpresek dokumentazio guztiaren gaztelaniarako edo euskararako itzulpen ofiziala aurkeztuko dute.

B gutun-azala.- "PROPOSAMEN TEKNIKOAK"

Lizitatzzaileek proposamen teknikoari buruzko gutun azal bat aurkeztuko dute, honako alderdi hauek bilduko dituenak:

- Zerbitzuaren funtzionamendurako proiektua (Kultur Etxe eta erabilera-lagapen mota bakoitzerako bereizita):

Lizitatzzaileek honako alderdi hauek barne hartzen dituen proiektu bat aurkeztuko dute: Musikagela zerbitzuaren funtzionamenduaren azalpena; lan-metodologia; kontratua gauzatzeko garatuko diren jarduerak; Musikagela zerbitzua dinamizatzeko jarduerak (prestatuntza ikastaroak barne); Musikagela zerbitzuarekin lortu nahi diren helburuak.

Halaber, kontratua gauzatzeko ardura izango duten enpresako langileen eginkizunak eta hauek betetzeko era zehaztuko dituzte, bai eta enpresaren beste egitura guztia ere eta, bereziki, enpresak bere langileekiko dituen enpresa- eta zuzendaritza-erantzukizun guztien betetzea enpresaren aldetik. Hori guztia, legearen aurkako langile-lagapen baten existentzia ahalbide dezaketen ekintzak edo egoerak saihesteko helburu nagusiarekin.

Funtzionamendu proiektua ez da loteslea izango; DONOSTIA KULTURAK aldatzeko gaitasuna izango du.

- Lizitatzzaileak kontratua gauzatzeko atxikiko duen lan-taldearen deskribapena.

Lizitazio honen abiapuntuetako bat da kontratuaren gauzatzeari atxikiko zaizkion langileen kalitateak kontratuaren gauzatzea nabarmenki baldintza dezakeela, zerbitzu intelektualei loturiko kontratua den heinean.

Testuinguru honetan, giza bitartekoak atxikiko zaizkio kontratuaren gauzatzeari.

Honela, orri honen **21. Klausulak** zehazten duen Koordinatzailearen figura atxikiko zaio, gutxienez.

Konpromiso hori baloratzeko aukera egongo da, hurrengo Klausulan zehaztutako baldintzen arabera.

Lizitatzailleak arreta berezia jarriko du gutun-azal honen dokumentazioa osatzerakoan eta edukiari eta formatuari dagokienean zehaztutako jarraibideak jarraituko ditu. Halaber, ezingo da eskaintzaren alderdi ekonomikoei inguruko zantzua edo informazioa eskaintzen duen aipurik egin.

Printzipio horiek betetzen ez dituzten eskaintzak alboratu eta prozeduratik kanpo geldituko dira.

DONOSTIA KULTURAK lizitatzailleek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen lanak egiteko edo dokumentazioa osagarria eskatzeko eskubidea erreserbatuta du.

3/2016 Legeak, apirilaren 7koa, Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan Sartzekoak, dioena betetze aldera, kontratua lan, Gizarte Segurantzza eta laneko segurtasun eta osasun arloetan indarrean dauden arau, lege eta hitzarmenen mende dagoela nabarmendu beharra dago.

Testuinguru honetan, esleipendun suertatuz gero kontratua gauzatuko duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa zehaztuko dute lizitatzailleek, beren proposamen teknikoan.

Gutun-azal honen dokumentazioa jatorrizkoa edo kopia sinplea izan daiteke. Hala ere, DONOSTIA KULTURAK, eskaintzak baloratzeko orduan, enpresa lizitatzailleei jatorrizkoak eskatu ahal izango dizkie, aurkeztutako dokumentuen egiazkotasuna egiaztatzeko.

Ez da baloratuko gutun-azal honetan eskatzen diren elementu guztiak ez dituen eskaintzarik.

C gutun-azala.- "PROPOSAMEN EKONOMIKOA"

Lizitatzailleek orri honi **IV.D Eranskin** gisa txertatzen zaion ereduaren arabera idatzitako proposamen ekonomikoa aurkeztuko dute.

Proposamen ekonomikoa makinaz idatzita aurkeztuko da, eranskinik, zuzenketarik edo ezabaketarik gabe. Dokumentu horietan aldaketarik, hutsunerik edo akatsik egotea proposamena atzera botatzeko arrazoia izan daiteke.

DONOSTIA KULTURAK, esleipena egin aurretik edo ondoren, nahiz kontratuaren indarraldian, A, B eta C gutun-azalean aurkeztutako dokumentuen egiazkotasuna egiaztatu ahal izango du. Enpresak aurkeztutako datuetan edo zirkunstantzietan faltsutasunik aurkitzen bada kontratua baliogabea izan daiteke, enpresa kontratugileari egozteko moduko arrazoiaren ondorioz kontratua ez betetzeagatik.

Behin kontratuak esleitu eta urtebeteko epea amaitzen denean, DONOSTIA KULTURAK enpresa lizitatzailleek aurkeztutako dokumentazioa suntsitzea erabaki dezake, baldin eta lizitatzailleek ez badute jaso.

14. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Balorazio irizpideak, dagokien haztapenez adierazita, honako hauek dira:

1. Proposamen teknikoa: 70 puntu gehienez ere.

- Zerbitzuaren funtzionamendurako proiektua (Kultur Etxe bakoitzerako bereizia): 60 puntu gehienez ere

Ondoko alderdiak baloratuko dira:

- Musikagela zerbitzurako proposaturiko funtzionamenduaren eta kontratua gauzatzerakoan garatuko diren jardueren egokitzapena, egingarritasuna eta egokitasuna: 30 puntu gehienez ere;
 - Proposaturiko lan-metodologiaren zehaztasuna, bizitasuna eta operatibitatea: 10 puntu gehienez ere;
 - Musikagela zerbitzua dinamizatzeko (prestakuntza ikastaroak barne) jardueren egokitzapena, egingarritasuna eta egokitasuna: 10 puntu gehienez ere;
 - Zehazturiko helburuen egingarritasuna: 5 puntu gehienez ere;
 - Kontratuaren gauzatzeari atxikiko zaizkion enpresako langileen eginkizunak eta hauek betetzeko era: 5 puntu gehienez ere.
- Lizitatzailerak kontratuaren gauzatzeari atxikiko dion lan-taldearen deskribapena: 10 puntu arte.

Lizitatzailerak kudeaketa eta dinamizazio zerbitzuaren gauzatzeari atxikiko lukeen giza taldearen kualifikazioa eta egokitasuna baloratuko da. Kualifikazio eta egokitasun horren baitan, kontratuaren gauzatzean garatu beharreko jarduerekin loturiko gaietan duten eskarmentua, titulazioa eta prestakuntza baloratuko dira.

2. Proposamen ekonomikoa: 30 puntu gehienez ere.

Baloratuko den eskaintza ekonomikoa (On) kultur etxe bakoitzean eskaini beharko diren zerbitzuei dagokienean lizitatzailerak proposatu dituen urteko bi prezioen batezbesteko aritmetikoaren emaitza izango da.

Aurreko paragrafoan ezarritakoari jarraiki kalkulaturako eskaintza ekonomikoari (On), puntuak kalkulatu ahal izateko, ondoren zehazturiko formula aplikatuko zaio.

Puntuak proportzionalki esleituko dira, ondoko balioen artean:

1. Kultur etxe bakoitzean eskaini beharreko zerbitzuei dagokien lizitazioaren urteko gehieneko aurrekontuen (P1 eta P2), Orri honen 7. Klausulan zehaztuta daudenak, batezbesteko aritmetikoa; hau da, 24.297,52 euro.
2. Honako hauen arteko kopururik txikiena:
 - a) Eskaintzarik txikiena.

- b) Kultur etxe bakoitzean eskaini beharreko zerbitzuei dagokien lizitazioaren urteko gehieneko aurrekontuen (P1 eta P2), Orri honen 7. Klausulan zehaztuta daudenak, batezbesteko aritmetikoa, minus % 20.
- c) Eskainitako batezbesteko prezioa (jasotako eskaintza guztien artean), minus % 10.

Honela baloratuko da: Kultur etxe bakoitzean eskaini beharreko zerbitzuei dagokien lizitazioaren urteko gehieneko aurrekontuen (P1 eta P2), Orri honen 7. Klausulan zehaztuta daudenak, baliokidea aurkezten duen lizitatzailerak 0 puntu jasoko ditu; beste guztiei, hurrengo matematika-formula aplikatuko zaie:

$$P_{tn} = \frac{(PI - O_n)}{(PI - O_l)} \times P_{to}$$

(non PI = Kultur etxe bakoitzean eskaini beharreko zerbitzuei dagokien lizitazioaren urteko gehieneko aurrekontuen (P1 eta P2), Orri honen 7. Klausulan zehaztuta daudenak, batezbesteko aritmetikoa den; Pto= Gehieneko puntuazioa; Ol= Prezioren txikiena 2. Atalaren arabera; On= lizitatzailer bakoitzaren eskaintza ekonomikoa; Ptn= lizitatzailer bakoitzak lortu duen puntuazioa).

Proposamen desagoki edo irregular bat antzemanen gero, eskaintza egin duen lizitatzailerari audientzia emango zaio, eskaintzaren balorazioa justifikatzeko eta baldintzak zehazteko.

Horretarako, proposamen guztien arteko batezbesteko aritmetikoa baino % 25 (edo gehiago) txikiagoa den eskaintza oro desagokizat edo anormaltzat hartuko da.

15. EBALUAZIO BATZORDEA

Proposamenak baloratzeko Ebaluazio Batzordea honako kide hauek osatuko dute:

- DONOSTIA KULTURAKO Kontratazioko ordezkari bat.
- DONOSTIA KULTURAKO Kultur Ekintzako bi ordezkari.

16. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Ebaluazio Batzordeak A gutun-azaleko ("Kontratatzeko gaitasuna") dokumentazioa kalifikatuko du lehenik eta behin, garaiz eta eraz. Aurkeztutako dokumentazioan konpon daitekeen akatsik edo ez-egiterik antzemanen gero, hiru egun balioduneko epea utziko da, gehienez ere, enpresa lizitatzailerak akats edo ez-egite horiek konpontzeko.

Jarraian, B gutun-azala irekiko da, proposamen teknikoa biltzen duena, berori aztertu eta baloratzeko.

C gutun-azaleko proposamen ekonomikoen irekiera publikoki egiaztatuko da eta, xede horrekin, proposamen publikoak irekitzeko egintza publikoaren data, ordua eta lekua jakinaraziko zaie onartutako lizitatzailer guztiei, II. **Eranskinaren** arabera jakinarazpenak jasotzeko aukeratu duten bitartekoa erabiliz. Kontratugilearen profilean argitaratuko da guztia (www.donostiakultura.com) 48 ordu lehenago gutxienez.

Proposamen ekonomikoak irekitzeko egintza publikoaren hasieran, proposamen teknikoaren balorazioaren emaitzak jakinaraziko zaizkie bertaratu diren enpresa lizitatzaillei, betiere horrela egiteko eskatzen badute.

Proposamen ekonomikoak irekitzeko egintza publikoa amaitzean, proposamenak aztertu eta baloratuko dira.

Ebaluazio Batzordeak baztertu egingo ditu Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (HAKLEO aurrerantzean) onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 84. artikuluan aurreikusitako arrazoietan nahastuta dauden proposamenak. Halaber, aurkeztu diren proposamenen zerrenda bidaliko dio Kontratazio Organoari, handienetik txikienera sailkatuak, eta **14. Klausulan** ezarritako balorazio-irizpideak kontuan hartuta. Era berean, ekonomikoki eskaintza abantailatsuena zein den adieraziko du.

Proposamena egin aurretik, esleipenari buruz nahi beste txosten tekniko eskatu ahal izango ditu.

Ebaluazio Batzordearen proposamena txosten juridikoaren pean jarriko da.

Ebaluazio Batzordeak proposamen ekonomiko onuragarriena identifikatzeak ez du eskubiderik sortzen proposatutako lizitatzaillearen alde.

17. KONTRATUA ESLEITZEA

Esleipenerako lizitatzaila aukeratzeko, Kontratazio Organoa bat etorriko da, oro har, Ebaluazio Batzordeak egindako proposamenarekin. Aitzitik, Kontratazio Organoak proposamenetik bereizteko erabakia arrazoitu beharko du eta, hala badagokio, proposamenak behin betiko identifikatuko ditu.

Kontratazio Organoak jarraian adieraziko den dokumentazioa eskatuko dio eskaintza ekonomiko onuragarriena egin duen lizitatzailari; eta lizitatzailak hamar egun balioduneko epea edukiko du aurkezteko, horretarako jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita:

- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela justifikatzen duten agiriak.

Esleipendunak EJZn, kontratuaren xede den epigrafean, alta hartu duela frogatu beharko du. Horretarako, alta-agiria aurkeztu beharko du, une horretako ekitaldiari baldin badagokio, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Edozein modutan, aipatutako zergan baja hartu ez dela ziurtatzen duen erantzukizunpeko aitortpen bat aurkeztuko da.

- Kontratua gauzatzeko hitz emandako giza baliabideak benetan esleitu izanaren egiaztagirak.

Kontratuaren gauzatzeari atxikiko zaizkion giza bitartekoei dagokienean, aukeratutako lizitatzailak ondoko dokumentazioa bete beharko du:

- Kontratuaren gauzatzeari atxikiko zaizkion langile guztien izen-abizenak, bai eta beren curriculum vitae fitxak ere. Fitxek ondokoak adieraziko dituzte:
 - Titulu akademiko ofiziala.
 - Dagokion arloan duen eskarmentua.
 - Orri honen **21. Klausulak**, laugarren gidoian, hizkuntza-gaitasunari dagokionez ezartzen dituen baldintzen betetzea.
- Giza bitarteko horiek guztiak egiazki enpresaren esku daudela egiaztatzeko dokumentazioa.

DONOSTIA KULTURAK lizitatzailleek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen lanak egiteko edo dokumentazioa eskatzeko eskubidea erreserbatuta du.

Adierazi beharra dago Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak (aurrerantzean, DPBLO) dioenari jarraiki eta giza baliabideei buruzko dokumentu horiek daramaten informazioaren izaera ikusita, (i) horien pilaketa eta trataera datu pertsonalen tratamendua suposatuko duela eta aukeratu lizitatzaillea izango dela Tratamenduaren Arduraduna; eta (ii) lizitatzailleak proposamenaren baitan aipatu datuak Kontratazio Organoaren esku uzteak datu horien lagapena suposatzen duela, lizitatzaillea lagatzailea delarik.

Eragin horietarako, aukeratu lizitatzaillea aurreko paragrafoan zehazturiko datuen tratamendu eta lagapenaren inguruan DPBLOk dioena betetzera behartuta dago. Zehazki, eta bestelako betebeharrak kalterik egin gabe, Tratamenduaren Arduradun den heinean aukeratu lizitatzailleak DPBLOren 11. artikuluan xedaturikoa bete beharko du eta bere ardura bakarra izango da interesatuen oniritzi kontziente eta informatua lortzea datu horien lagapenerako. Aipatua ekintza Kontratazio Organoaren aurrean egiaztatu beharko du, eskaera egiten zaion guztietan.

- Orri honen **11. klausulan** aurreikusitako behin betiko bermea osatu dela ziurtatzen duen frogagiria.
- Argitaratu lizitazio-iragarkiaren gastuak ordaindu direla egiaztatzen duen agiria.
- Dagokionean, aldi baterako enpresa-elkartea legez eratu dela egiaztatzeko agiria. Aldi baterako elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko da eta horrek kontratua amaitu arte sortuko diren eskubideak gauzatu eta betebeharrak betetzeko botere nahikoa izango du.

Eskatutako guztia epearen barruan betetzen ez bada, enpresa lizitatzailleak bere eskaintza atzera bota duela ulertuko da; kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo enpresa lizitatzaileri (eskaintzen sailkapenaren arabera aukeratuko dira lizitatzailleak).

Kontratazio Organoak aipatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliadunetan erabakiko du kontratuaren esleipena; gehienez ere bi hilabeteko epea edukiko du, proposamenak irekitzen diren egunetik hasita.

Esleipena ebazpen arrazoitu bidez erabakiko du Kontratazio Organoak, eta lizitatzaillei jakinaraziko zaie, Orri honen **II. Eranskineko** ereduaren arabera; aldi berean, DONOSTIA KULTURAKo kontratugilearen profilean argitaratuko da.

18. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua formalizatzean burutuko da.

Kontratua dokumentu pribatu bidez formalizatuko da, esleipenaren jakinarazpena jasotzen den egunean hasiko den hamabost egun balioduneko epean, eta dokumentua nahikoa izango da edozein erregistro publikotan gordetzeko

Esleipendunak, halere, kontratua eskritura publiko bilakatu dadin eskatu ahal izango du; kasu horretan, bere kontura izango dira sortutako gastuak.

Kontratuaren formalizazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta DONOSTIA KULTURAKo kontratugilearen profilean argitaratuko da. Argitalpena kontratua esleitzen denetik berrogeita zortzi egun naturaleko epean egingo da, gehienez ere.

Enpresa esleipendunaren kontura izango dira Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kontratuen formalizazioaren iragarkiak argitaratzeagatik sortutako gastuak.

Esleipendunari egotz dakizkikeen arrazoiengatik, kontratua adierazitako epearen barruan formalizatu ez bada, DONOSTIA KULTURAK hurrengo lizitatzaileri eska dakiokete Orri honen **17. Klausulan** adierazten den dokumentazioa eta hamar egun balioduneko epea utziko zaio dokumentazio hori aurkezteko.

19. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio Organoak kontratuaren arduraduna izenda dezake. Arduradun horren lana izango da kontratuaren gauzatzea gainbegiratzeko eta hitzartutako zerbitzua behar den bezala eskaintzen dela ziurtatzeko jarraibideak ematea eta gauzatzea, berari dagozkion eskumenen barruan.

Kontratuaren arduraduna pertsona fisiko bat edo juridiko bat izan daiteke, DONOSTIA KULTURAKen barrukoa edo kanpokoa.

Enpresa esleipendunak nahitaez beteko ditu kontratuaren arduradunak ematen dituen jarraibideak. Aipatu jarraibideak zerbitzua koordinatzeko esleipendunak izendatu duen pertsonari jakinaraziko zaizkio zuzenean.

20. KONTRATUA GAUZATZEA

Hain zuzen ere, honako baldintza hauen arabera gauzatuko da kontratua:

- Kontratua lan, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasun arloetan indarrean dauden arau, lege eta hitzarmenen mende dago.

Testuinguru honetan, esleipendun suertatuz gero kontratua gauzatuko duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa zehaztuko dute lizitatzailerik, beren proposamen teknikoan. Kontratua gauzatuko duten langileei enpresa esleipendunak aplikatuko dien hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa esleipen-erabakian eta kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Halaber, kontratua esleitu eta gero langileei egiazki aplikatuko zaizkien lan-baldintzen inguruan eskatu zaion informazioa guztia ematera behartuta egongo da esleipenduna.

Esleipendunak, kontratuaren gauzatze osoan zehar, aplikatuko den hitzarmen kolektiboaren eta langilearen kategoriaren arabera ordainsaria ordaindu beharko du. Aipatu ordainsariak ezin du inolaz ere langileari dagokiona baino txikiagoa izan.

Atal honetan zehaztutako konpromiso hori funtsezko kontratu-betebeharra izango da SPKLTBko 223. g) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Urratuz gero, DONOSTIA KULTURAK kontratua bertan behera uzteko eskubidea du.

- Kontratua enpresa esleipendunaren arrisku eta menturaz gauzatuko da.
- Kontratua bere eduki eta baldintzen, Ekonomia eta Administrazio Klausulen Orriaren, Baldintza Teknikoen Orriaren, esleipendunak aurkeztutako eskaintzaren eta DONOSTIA KULTURAK ematen dituen jarraibideen arabera gauzatuko da.
- DONOSTIA KULTURAK kontratu betebeharrak zuzen betetzen direla eta guztiak behar den bezala gauzatzen direla kontrolatu, egiaztatu eta gainbegira dezake, edozein unetan eta edozein bitarteko baliatuz.

Xede horrekin, DONOSTIA KULTURAK egokitzen jotzen dituen kanpo laguntzak jaso ahal izango ditu, kontratu betebeharrak behar bezala betetzen direla eta lanak kalitate maila egokiaz egiten direla egiaztatzeko edo ikuskatzeko.

Esleipendunak DONOSTIA KULTURAK zerbitzuekin lotuta eskatzen dizkion datu guztiak aurkeztuko ditu, beharrezkoa den laguntza guztia eskainiko du, kostu gehigarririk gabe, eta, zenbait kasutan, kontratatutako zerbitzuen lan, administrazio, edo bestelako alorretako dokumentazioa emango du.

Esleipendunak ez du oztoporik jarriko DONOSTIA KULTURAK egiten dituen ikuskapen eta kontrol lanetan.

Hala eta guztiz ere, DONOSTIA KULTURAK edozein urratze edo arazo ikusiz gero, aipatua zerbitzua koordinatzen duen pertsonari jakinaraziko dio. Azken horrek du zerbitzua eskaintzen duten langileak antolatzeko, gainbegiratzeko edo, hala dagokionean, zigortzeko eskumena.

- Langile guztiak esleipendunaren mende egongo dira. Esleipendunarenak dira bere enpresa izaerari dagozkion eskubideak eta betebeharrak eta ezin izango zaio DONOSTIA KULTURARI erreklamaziorik egin dagozkion lan harremanengatik edo gainerako betebeharrengatik.

Esleipenduna izango da arduradun bakarra zerbitzua gauzatzeko ardura duten langileekin lotutako edozein ezbehar edo erreklamazioren aurrean (judiziala edo

estrajudiziala). DONOSTIA KULTURAK ez du lan-erantzukizunik (laneko segurtasun, higiene eta osasunarekin lotutakorik), ez eta Gizarte Segurantzarekin edo zerga-esparruarekin lotutako erantzukizunik ere, esleipendunak zuzenean edo zeharka hartzen dituen betebeharrak dagokienez. Era berean, enpresa esleipendunak bere gain hartuko ditu zerbitzua egitean gertatutako ezbeharren ondoriozko erantzukizunak.

- Kontratugileak DBLOn eta berau garatzeko araudiak ezarritako betebeharrak beteko ditu, datu pertsonalik erabiltzen badu. Hala izanda, kontratua indarrean dagoen bitartean, enpresa esleipendunak, bere jardueren esparruan, egiten duen datu pertsonalen edozein tratamendu, eta tratamendu horren Arduradun den aldetik, bere kontura eta bere erabakiz egiten duela ulertu behar da, Orri honen **22. klausulan** berariaz ezartzen dena kontuan hartu gabe.
- Esleipendunak lana ondo eta kontratuan hitzartutako baldintzetan egiteko beharrezkoak diren tresneria eta bitarteko osagarriak jarri beharko ditu, eta bere betebeharrak betetzeko behar dituen langileak kontratatu beharko ditu. Kasu horretan, lanaren eta segurtasunaren arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu beren ardurapeko langileekin.

21. OINARRIZKO KONTRATU BETEBEHARRAK

Honako hauek dira funtsezko kontratu-betebeharrak:

- Kontratua betetzea, bertako klausuletan, aplikazio-orrietan eta DONOSTIA KULTURAK esleipendunari emandako barne-aginduetan ezarritakoa zorrotz gauzatuta.
- Kontratua gauzatzeko hitzartutako bitartekoak atxikitzea kontratura.
- Zerbitzua koordinatzeko pertsona bat izendatzea.
- Musikagela zerbitzua euskaraz eta gazteleraz eskainiko da; erabiltzaileek dute aukeratzeko eskubidea.
- Kontratuaren gauzatzeari atxikitako pertsonak, beren eginkizunak betetzean harreman zuzena badute Musikagela zerbitzuko erabiltzaileekin eta/edo biztanleriarekin, euskara eta gaztelera maila nahikoa izan beharko dute. Aipatua B2 maila (Europako Marko Bateratua) edo baliokidea izango da eta DONOSTIA KULTURAK egoki jotzen duen eran egiaztatu beharko da.
- Aginduak, lana egiteko irizpideak eta arauak ematea langileei. DONOSTIA KULTURA lan-harreman horietatik kanpo geldituko da eta ez du, inolaz ere, aipatuak baldintzatzeko eskubiderik izango. Esleipendunaren betebeharrak eskusiboa da ere langileen ordutegiak, balizko baimenak edo lizentziak edo enplegatzailearen eskumen diren alderdi guztiak kontrolatzea. Nolanahi ere, esleipendunaren betebeharrak eskusiboa da, Orrietan zehaztutako moduan, zerbitzua behar bezala estalia dagoela bermatzea.
- Kontratuaren arduradunak eta DONOSTIA KULTURAKO langile teknikoek emandako jarraibideak betetzea eta kontratua DONOSTIA KULTURAREKIN modu koordinatuan gauzatzea.

- Zerbitzua behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren baimenak eta lizentziak bere kontura lortzea. Halaber, enpresa esleipendunak zerbitzua egiteko dituen gastu guztiak estali beharko ditu, eta mota orotako tasak eta zergak, jarduera garatzeagatik dagokion zerga eta kontratuaren indarraldian kontratua gauzatzeagatik ondoriozta daitezkeen zerga guztiak.
- Orri honen **11. Klausularen** arabera, behin betiko bermea eratzea.
- "Lan-esparruan indarrean dauden lege-xedapenak betetzea (hitzarmen kolektiboa, soldatak, eta abar) eta Gizarte Segurantzako betebeharrak eta laneko segurtasun eta osasunekoak betetzea; DONOSTIA KULTURAK ez du erantzukizunik izango betebeharrak hori urratzeagatik"
- Kontratua gauzatzerakoan, esleipendunak sexista ez den lengoia erabili beharko du dokumentazio eta materialean, orokorrean, eta komunikazioaren arloan bereziki (webgunea, sare sozialak, offline komunikazioa, etab.).
- Kontzertu eta ikastaroak antolatzerakoan, esleipendunak emakumeen eta gizonen arteko oreka bermatuko du.
- Greba kasuan, zerbitzuak beteko dira. Zerbitzuak bermatzea ezinezkoa bada, DONOSTIA KULTURAK ahalmena izango luke zerbitzuak egiteko beharrezkoak diren kontratuak sustatzeko; halakoetan, fakturaziotik kenduko da kontratu horiei dagokien zenbatekoa.

Greba garaian benetan egindako zerbitzuei dagokien prezioa baino ez da ordainduko.

- Langileak ordezkatzeko, betetzen duten egitekoa eta horren iraupena edozein direla, dagokien lana behar bezalako arduraz eta eraginkortasunez egiten ez badute, gaitasun nahikoa ez badute, zerbitzuak egitean arreta nahikoa ez badute edo kontratua ondo garatzeko ekintza kaltegarriak egiten badituzte. DONOSTIA KULTURAK eskaera egin eta gehienez ere hirurogeita hamabi orduko epean egingo dira ordezkapenak. Langileak ordezkatzeko DONOSTIA KULTURAK ez du erantzukizunik hartzen bere gain, esleipendunak eragindako langileekin dituen harremanei dagokienez.
- Langileak ordezkatzeko gaixotasun, opor, baimen, lizentzia, istripu eta abarregatik izaten diren bajak estaltzeko; kontratatutako zerbitzuak eraginkortasunez egingo direla ziurtatuta. Gehienez ere hirurogeita hamabi orduko epean egingo dira ordezkapenak.
- Kontratua behar den bezala garatu eta betetzeko DONOSTIA KULTURAK beharrezkotzat jotzen dituen zerbitzuak eskaintzea, ordainketa gehigarriak jasotzeko eskubiderik gabe. Betebeharrak hori bermealdiak irauten duen bitartean edo kontratua amaitu arte mantenduko da, hala badagokio.

Klausula honetan barne hartutako betebeharrak kontratu betebeharren izaera izango dute SPKLTBren 223) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Horiek urratzea kontratua suntsiarazteko arrazoi izan daiteke, DONOSTIA KULTURAK nahi badu.

22. DATUEN BABESA

Kontratazio honen xede diren zerbitzuak eskaintzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan: (i) esleipendunak datu pertsonalak tratatzea, DONOSTIA KULTURAREN kontura; eta (ii) esleipendunak DONOSTIA KULTURA titular deneko fitxategiei gaineratutako datu pertsonalak eskuratzea.

Testuinguru horretan, esleipendunak DPBLOn ezarritakoa (9., 10. eta 12. artikulua bereziki), DPBLO garatzeko Araudia onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuak (aurrerantzean, DPBLOA) ezarritakoa eta aipatuak garatzen dituzten beste xedapen guztiak bete beharko ditu.

Honela, DBLOren arabera, esleipendunak, tratamenduaren enkargatu gisa, obligazioa du Tratamenduaren Arduradun DONOSTIA KULTURAREkin datuak eskuratzeko dagokion kontratua hitzartzeko, DBLOren 12. artikuluan eta DPBLOren 20. artikuluan adierazten den edukia eta eragina barne hartuta.

Datuak eskuratzeko kontratu hori aldeek zerbitzuaren gauzatzeari buruzko kontratua sinatzen duten une berean sinatuko da.

Nolanahi ere, eta datuak erabili ahal izateko kontratuak dioena alde batera utzita, kontratazio honen xede diren zerbitzuen eskaintzari lotuta, enpresa esleipendunak ondoko neurriak hartuko ditu:

- DPBLO, DPBLOA eta kontratua esleitzeko egunean edo bere iraupenean zehar indarrean egon daitezkeen beste garapen-neurri guztiak bete beharko ditu.
- Indarreko legediak datu pertsonalak babesteko aurreikusten dituen interesatuari informatzeko eta horren oniritzia jasotzeko betebeharrak beteko ditu.

Beharrezko baliabideak erabiliko ditu (esaterako, informazio-klausulak formulario eta interesatuekin erabiliko diren dokumentu guztietan, etab.); klausulak ezarri beharko duena da (i) datuen tratamendua DONOSTIA KULTURAREN edo aipatua Tratamenduaren Enkargatutzat jotzen duten hirugarrenen kontura egiten dela, kasuaren arabera; (ii) Orri honen xede diren zerbitzuen gauzatzean lorturiko izaera pertsonaleko datuak DONOSTIA KULTURAKO edo aipatua Tratamenduaren Enkargatutzat jotzen duten hirugarren horien jabetzako fitxategi batean gordeko direla; eta (iii) horrenbestez DONOSTIA KULTURA edo aipatua Tratamenduaren Enkargatutzat jotzen duten hirugarren hori tratamenduaren Arduradun bakar eta eskusiboa dela eta enpresa esleipenduna Tratamenduaren Enkargatu hutsa dela.

- Beharrezko segurtasun neurriak hartuko direla, DPBLOarekin edo aipatu araua etorkizunean ordezkatzeko duen edozein arauarekin bat.
- DONOSTIA KULTURAREN eskaera jasotzen duen bakoitzean, DONOSTIA KULTURAREN kontura trataturiko datuen eta aipatuak eskaini dizkion dokumentuen konfidentzialtasuna eta integritatea bermatzeko hartu dituen neurrien azalpen-memoria bat aurkeztu beharko du.
- Aipatu segurtasun-neurrien aplikazio eta jarraipenaz zuzenean arduratzen den/diren pertsona/ak jakinaraziko dizkio Donostia Kulturari.

- Datu pertsonalak babesteko indarrean dauden arauetatik datozen betebeharrak jakinaraziko dizkie langileei.
- Esleipenduna eta lizitazio honen xede den kontratua gauzatuko duten bere langileak kontratua indarrean egon den bitartean maneiatu dituzten datu, dokumentu eta gaien inguruko sekretu profesionala gordetzera behartuta daude, bai eta aipatuak behar bezala gordetzera.

23. KONFIDENTZIALITASUNA ETA SEKRETU BETEBEHARRA

Esleipenaren publizitateari dagokionez eta enpresa lizitatzailerei eman beharreko informazioari dagokionez Orri honetan xedatzen denari kalterik egin gabe, DONOSTIA KULTURAK ezin izango du zabaldu enpresa lizitatzailerek konfidentzialtzat jo duten informazioa, batez ere, sekretu tekniko edo komertzialekin zerikusirik duenean.

Enpresa esleipendunak, bere aldetik, kontratua gauzatzeko eskuratzen eta ematen duen informazioaren konfidentzialtasuna gordeko du, baita Orrietan izaera hori ematen zaion informazioa eta berez konfidentziala dena ere.

Konfidentzialtasunak iraupen mugagabea edukiko du.

Modu osagarrian, eta DBLOn aurreikusitakoarekin bat eginez, DONOSTIA KULTURAREN datu pertsonalen tratamenduan parte hartzean, enpresa esleipendunak eta bere langileek obligazioa hartzen dute datuekiko sekretu profesionala gordetzeko eta isilpean gordetzeko.

24. ZIGORRAK

Enpresa esleipendunak bere ardura diren arrazoiengatik atzerapenez jokatu balu proposatu edo zehazturiko egutegian zehaztutako exekuzio-epeekiko, bere kasuan eta Preskripzio Teknikoen Orriko 2.3 Klausulan zehazturikoarekin bat, DONOSTIA KULTURAK bi aukera izango ditu: alde batetik, kontratua bertan behera uztea **32. Klausulak** dioenaren arabera; edo bestetik, bere gauzatzearekin jarraitzea. Kasu horretan, 0,20 euroko zigorra ezarriko litzateke kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzagatik.

Enpresa esleipendunak gauzatze kaskarra egingo balu edo bestelako kontratuko betebeharrak beteko ez balitu, 0,20 euroko zigorra ezarriko litzateke kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzagatik. Aipatu zigorra akatsa konpontzeko atzeratutako egun kopuruaren gainean aplikatuko da, eta beste edozein kontratu-baldintza urratzen bada, urratzen den egun kopuruaren gainean.

Zigor horiek metagarriak izango dira zinez eragindako kalte eta galerei dagokienez.

Kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzen bada, eta ez betetzeak iraun bitartean, DONOSTIA KULTURAK edozein unetan utz dezake indarrik gabe kontratua, lehen adierazitako ondorioekin.

Zigorak gauzatzeko, kenkariak egingo dira enpresa kontratugileari ordaindu beharreko kopuruan, eta, hori ezinezkoa bada, behin betiko bermearen gainean. Kasu horretan, behin betiko bermeaz gaineko kopurua erreklamatu egingo da.

Edozein modutan, kontratua bertan behera utzi zein jarraitu erabaki, DONOSTIA KULTURAK egokitzen jotzen duen denboran hirugarrenen bitartez zerbitzua eskaintzen jarraitzeko erabaki dezake berak bakarrik. Kasu horretan, esleipendunak ordainduko du jarraipen horren kostua, kalte galerei eta Klausula honetan aurreikusitako ondorioei kalterik egin gabe.

25. KONTRATUA LAGATZEA

Ezingo dira inolaz ere laga kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak.

26. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratuko prestazioak azpikontrata daitezke, baldin eta DONOSTIA KULTURAK aurretiazko baimena ematen badu, zehazki eta idatziz. Edonola ere, enpresak lege-betebeharrak eta Orri honetan DONOSTIA KULTURArekin kontratuak egiteko eskatzen diren betebeharrak bete beharko ditu eta ez du kontratatzeko debekurik izango. Hori guztia azpikontratatu beharreko zerbitzugintzari dagokionez.

Azpikontratatik enpresa esleipendunaren aurrean hartzen du konpromisoa; hortaz, enpresa esleipendunak erantzungo du DONOSTIA KULTURArekin aurrean eskaintzen duen zerbitzuagatik, betiere Ekonomia eta Administrazio Klausulen Orrian, Baldintza Teknikoen Orrian eta sinatzen den kontratuan adierazitakoari lotuta.

27. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratazio Organoak kontratua aldatu ahal izango du, SPKLTBaren 107. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

28. ERANTZUKIZUNA

Enpresa esleipendunak izango du egiten dituen lanen eta eskaintzen dituen zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna, baita kontratua gauzatzean egiten dituen utzikariak, akatsek, metodo desagokiek edo okerreko ondorioek DONOSTIA KULTURARI edo hirugarren batzuei eragin diezazkiekeen ondorioena ere.

Kontratua gauzatzeko eragiketen ondorioz, hirugarrenei eragin ahal zaizkien edo langileek jasaten dituzten kalte eta galera guztien kalte-ordainak enpresa esleipendunak ordainduko ditu.

DONOSTIA KULTURAK ez du erantzukizunik edukiko, enpresa esleipendunaren ordezkarien, horien lankideen edo horiekin batera lan egiten duten pertsonen egiteen edo ez-egiteen ondorioz hirugarren pertsonen gainean eragiten diren kalteen aurrean.

29. KONTRATUA ETETEA

DONOSTIA KULTURAK kontratuaren etetea adosten badu, edo etetea SPKLTBren 216. artikuluko 5. atalean xedatutakoa aplikatzeagatik egiten bada (kasu honetan berariaz

aplikatzekoa da), dagokion Akta egingo da. Idatzi horretan, etetea eragin duten arrazoiak eta kontratuaren egoera adieraziko dira.

Behin kontratua etetea erabaki eta gero, DONOSTIA KULTURAK esleipendunari jasan dituen kalte eta galerak ordainduko dizkio.

30. HARRERA

Kontratua guztiz beteko du enpresa esleipendunak zerbitzugintza osorik egin duenean; betiere, kontratuan adierazitako baldintzetan eta DONOSTIA KULTURAREN adostasunarekin.

Zati bakoitza jasotzen duenean eta lana osorik jasotzen duenean, DONOSTIA KULTURAK erabakiko du enpresa esleipendunak egindako prestazioak kontratua betetzeko ezarritako preskripzioekin bat ote datozen eta, hala badagokio, kontratatutako prestazioak eskaintzeko eta prestazioak jasotzean antzemandako akatsak zuzentzeko eskatuko dio.

Enpresa esleipendunari egotz dakizkiokeen akatsen ondorioz, lanak kontratatutako prestazioarekin bat ez badatoz, DONOSTIA KULTURAK horiek bazter ditzake eta ez du ordainketarik egin beharko edo, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea edukiko du.

Betiere, **25. Klausulan** aurreikusitakoari kalterik egin gabe; edozein kasutan, DONOSTIA KULTURAK dagozkion zigorrak eskatu ahal izango ditu, bai eta kalte eta galeren kalte-ordainak ere, kontratuaren xede den prestazioa eskaintzeko atzerapenik izan bada edo gauzatze akastuna egin bada.

31. KONTRATUA DEUSEZTATZEA

Kontratua deuseztatzeko arrazoiak dira SPKLTBren 223. artikuluko a) -85. artikuluan xedatutakoa kaltetu gabe-, b), d), f), g) eta h) hizkietan adierazitakoak eta, oro har, kontratuzko edozein betebeharrurratzea, Kode Zibilaren 1.124. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Klausula honetan kontratua suntsiarazteko aurreikusitako edozein kasutan, automatikoki egingo da suntsiarazpena; nahikoa izango da DONOSTIA KULTURAK enpresa esleipendunari jakinarazpena bidaltzea.

Hori guztia kasuan kasu egingo den kontratuaren likidazio ekonomikoari kalterik egin gabe izango da, eta jarraian xedatutakoari jarraituz.

Klausula honetan aurreikusitako arrazoiengatik edo legez egokiak diren arrazoiengatik kontratua suntsiaraztean eragiten diren erantzukizun ekonomikoak, edo legez dagozkionak, kontratua suntsiaraztean eta dagokion dokumentazioa aurkeztean likidatuko dira. Horrek ez du eragotziko, ordea, DONOSTIA KULTURA hura gauzatzen jarraitu ahal izatea.

Kontratua deuseztatzen bada, enpresa esleipendunak, printzipioz, benetan egindako lan guztien prezioa jasotzeko eskubidea du.

Enpresa kontratugileari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik indarrrik gabe uzten bada kontratua, kontratuaren balio zenbatetsiaren % 20 pareko kantitatea zergapetuko da DONOSTIA KULTURAREN alde, izaera metagarriarekin, kasuan-kasuan ordaindu beharreko kalte eta galeren ordainez gain.

Bi kopuru horiek behin betiko bermetik eta esleipendunari ordaintzeke dagoen kopurutik kenduko dira eta, hala badagokio, soberan geratzen den kopuruaren gainean erreklamazioa egingo da.

32. ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratuak pribatuak dira. Beren prestaketa eta esleipena Klausula Ekonomiko Administrazioen Orriak eta Preskripzio Teknikoen Orriak arautzen dituzte eta aurreikusi ez den osagai orori dagokienez, DONOSTIA KULTURAKO kontrataziorako barne-jarraibideak eta SPKLTBak herri-administrazio ez diren eta botere esleiztaile diren sektore publikoko entitateen arteko arauketa harmonizatupekoak ez diren kontratazio prozedurak arautzeko xedatzen dituen arauak.

Bere eragin eta iraungipenari dagokienez, kontratua Klausula Ekonomiko Administrazioen Orriak eta Preskripzio Teknikoen Orriak arautuko dute eta horiek kanpo gelditu diren osagaiei dagokienez, zuzenbide pribatuaren arauak. Nolanahi ere, SPKLTBaren I. Liburuko V. Tituluak kontratuen aldaketei buruz xedatzen dituen arauak ere aplikatuko zaizkio kontratuari.

Horrez gain, SPKLTB, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, sektore publikoko kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena, eta HAKLEO aplikatzekoak izango dira Orri honek testu arauemaile horietara espresuki jotzen duenerako.

33. JURISDIKZIOA

Jurisdikzio zibila izango da kontratuaren prestaketa, esleipen, eragin, betetze eta iraungipenaren inguruan sor daitezkeen auziak konpontzeko eskumena izango duena.

Auziak kontratuaren ingurukoak direnean, bi aldeek Donostiako Epaitegi eta Auzitegiara joango dira.

Donostia, 2016ko abuztuaren 1a

Jaime Otamendi Muñagorri Jauna
Zuzendari kudeatzailea

